

KOSTUEN EGITURA

Azkoyen enpresak egindako makinaren prezioa izango da kosturik garrantzitsuena, izan ere, inbertsio handi bat egin beharko dugu ideia hau aurrera joan dadin, eta Azkoyen da gure makina aurrera eraman ahal izateko funtsezko giltza.

Horrez gain, gure makina toki estrategiko batean jartzea pentsatu dugu eta hau Beasaingo Udaletxeko ataria izango da. Bertan makina jartzeko, behin baimena dugula, diru kantitate bat ordaindu beharko dugu. Bestalde, publizitate kanpainak egiteak ere kostua izango du, hau da, guk pertsonai ezagunei diruaren truke publizitate-kanpainak egitea eskatuko diegu. Baina hau eginez gero, irabaziak lortzen joango gara pixkanaka eta gastu hori berreskuratuko dugu. Horrez gain, besteak beste, kartelak egiteak ere bere gastuak izango lituzke.

Azkenik, makinaren mantenuaz arduratuko diren langile batzuk kontratatu ditugunez Azkoyen enpresak bideratuta, langile horiei soldata bat eman beharko zaie eta beraz hori enpresarentzat gastu bat izango da.